



Koldo Mitxelena Errenteriako semea Euskara Batuaren gidari eta lemazain. Zergatik?

Miren Azkarate
(Euskaltzaina)

Hizkuntza Politika edo *Hizkuntza Plangintza* terminoak ezagunak egin zaizkigu euskaldunoi azken hogeita hamar urte hauetan. Ikasi dugu, halaber, Corpus Plangintzak eta Estatus Plangintzak osatzen dutela Hizkuntza Plangintza. Hau da, erabilera-mota eta erabilera-esparru guztietara hedatu behar da hizkuntza; hizkuntzak funtzio guztiak bete ditzan beharrezko neurriak hartu behar dira (estatus plangintza). Baina horretarako, jakina, hizkuntza bera prestatu behar da; eskolan, hedabideetan, administrazioan, osasun-zerbitzuetan... erabiltzeko gaitu behar da; euskarari dagokionez (eta, oro har, gurea bezalako beste edozein hizkuntzari dagokionez) aldaera estandarra lantzea izan zen lehen eginkizuna, euskara batua deitu diogun aldaera izatea.

Horretarakoxe sortu zen Euskararen Akademia, Euskaltzaindia, 1918an; orduan Luis Eleizalde euskaltzainak Oñatin egindako hitzaldian "aspecto social" eta "aspecto literario" izenez eman zuen aditzera gaur estatus plangintza eta corpus plangintza deitzen duguna eta horregatik ditu hasieratik Euskaltzaindiak bi sail nagusi: Jagon Saila, euskara "zaintzeaz", euskararen gizarteratzeaz arduratzen dena eta Iker Saila, euskara aztertzeaz, ikertzeaz arduratzen dena.

Azken honi heldu zion bereziki Euskaltzaindiak eta hiru ardura nagusi hartu zituen 1919an: a) ortografia finkatzea; b) hiztegia eguneratu eta osatzea (garai hartako bizitzako kontzeptuak adierazteko behar ziren neologismoak, hitz berriak sortzea); c) lurralde guztietako euskaldunak batuko zituen *euskara literarioa* osatzeko lanari ekitea, beti ere tokian tokiko euskalkiak errespetatuaz eta hauek ordezkatzeko borondaterik gabe.

Azken eginkizun hau ageri da 1920an onartutako estatutuetako 6. artikuluan ere (Euskaltzaindiaren Sortarauak). Eta egiaz ekin zion lanari Euskaltzaindiak: ez ordenagailurik, ez informatikarik, ez corpusik ez zegoen garaietan, inkesta zabala egiten hasi zen euskaraz, euskalki batean eta bestean, formarik hedatuenak zein ziren jakin nahian: fonetika, morfologia eta lexikoari buruzko galderez osatutako *Erizkizundi Irukoitza* (Triple Cuestionario) prestatu, inkestagile-taldea antolatu eta euskararen zazpi lurraldeetako euskaldunei egin galde-sorta bera. Euskaltzaindiak berak argitaratu zuen lan erraldoi horren emaitza 1984an Iker bilduman, Ana M^a Etxaidek paraturik. Gerrak eten eta zapuztu zituen lan horiek guztiak.


Guk ezagutzen dugun batasunaren aldeko lana 1968tik honakoa da. Urte hartan, sortu zela 50 urte bete zirenean, Euskaltzaindiak Arantzazun egindako Kongresua hartzen dugu euskara batuaren hasieratzat. Ordutik aurrerako bidean hartutako erabakietan gidari nor izan zen galdetuko bagenu, uste dut euskararen munduan gabiltzan guztiok (edo ia guztiok) bat etorriko ginatekeela Koldo Mitxelenaren izena ematean. Zergatik? galde dezake batek baino gehiagok; izan ere, 1987ko urrian hil zen Mitxelena eta haren lana, batasunaren historia oro har, ezezaguna gerta dakieke euskara batua aski egina aurkitu duten belaunaldi gazteei. Zergatik? horri erantzun nahi diote orrialde hauek.

Garai hartan gertatua hobeto ezagutu eta ulertzeko, beharrezkoa zaigu nolako giroa zegoen jakitea. Besteak beste, komeni da argitzea ez zela Euskaltzaindia bera izan, bere baitatik, batasun-bideari ekitea erabaki zuena.

Hamabi urte lehenago, 1956ko irailean izan zen *Euskaltzaleen Bilkura Arantzazun Euskaltzaindiaren itzalpean* batzarra zela eta, "Karta idigia" idatzi zien Txillardegi "Arantzazun biltzen zeraten guziori". Euskararen beheraka gorriaz kezkatu ageri da Txillardegi (Mitxelenak berak ere antzeko kezka azaldu zituen biltzar hartan). Geroz eta ahulago zegoen euskara ahozkoa, eta literatura-lanetako euskara ere beheraka zihoan; hala zioen Txillardegi. Horri aurre egiteko zer egin behar zen ere, ez zuen zalantza handirik: "Osakuntza aundia bear du euskerak gaurko bizikeran gai izateko. Egia esan, eta euskeraren sufijatzeari eskerrak, berritze ederra egin ditek euskera beretik atera gabe, ta au egin bear da al denetan. Bañan asmakari ta kontzetu berri ugari ekarri dizkigu zibilizazioak, oso itz berezi, ta euskera "garbia" egiteko asmoa txatxukeria utsa da, izkuntza batek ere egin ez duena, eta gure izkuntzan gertatuko ez dan gauza".

Eta handik bi urtera, 1958an Bilbon egin-dako Euskaltzaleen Batzarrean "Batasunaren bidea" izeneko txostena aurkeztu zuen Jose Luis Alvarez Enparanza "Txillardegi", proposamen zehatzak eginaz ze neurri hartu beharko liratekeen deklinabidean, joskeran, hitz berriei eta maileguei dagokienez, maileguak egokitzeko moduz... Baina artean Euskaltzaindiak ez zuen ikusten lan horri ekiteko giro egokirik. Berrito ere Koldo Mitxelenaren izan zen, Txillardegi txostenaren aurkezpena amaitu eta, haxe erantzun ziona: "Nire ustez, alegia, gutxi gora bera bat gatoz. Eztut uste, ordea, gaur batasunik egin ditek eanik" (*Euskera* IV, 1959: 171).

Baina hazia ereinda zegoen eta mugaz alde bateko eta besteko idazleek osatutako *Euskal Idazkaritza Elkarte* izan zen 1964an Baionan eginiko bilkuran akordio zehatzak hartu zituen idazkeraz, deklinabideaz, aditzaz eta baita "H" dun hitzen zerrenda bat osatu ere. Beren idatzietan akordio horiek betetzeko erabakia izan zen, praktikan, euskara batuaren ernamuina. Baionan hartutako erabakiak Euskaltzaindiari bidali, batasunaren gidaritza hartzera dei egin eta hortik sortu zen 1968ko Arantzazuko Biltzarra. Mitxelenak berak ere hala aitortu zuen 1977an *Deia* egunkarian argitaratutako "Jaioko dira berriak" izeneko artikuluan: "Gauza jakina da, edo behar luke izan, Euskaltzaindia batasun bideetan barrena abiatu zenean, jendearen (euskal idazle eta irakasleen, ez euskaltzale platonikoen) orroak bultzaturik abiatu zela. Mende erdi batez sortu zuen eskariari uko eginaz bizi ondoren, euskararen



Mitxelenaren. Ayalde, 1967

batasunerako izan baitzen sortua, bestetarako baino areago Oñatiko batzarrean".

Nori eskatu zion Euskaltzaindiak Biltzar hartarako txostena, ondorengo eztabaida eta erabakien oinarri izango zena? Koldo Mitxelenari. Zergatik? Bera zelako hizkuntza-gaietan jantziarena, zalantzarik gabe, unibertsitate-ikasketak zituen, doktore-tesia egin zutena euskal fonetika historikoaz, ordurako lan garrantzitsuak argitaratu eta European itzal handiko hizkuntzalari eta filologoa zelako. Antonio Tovar Salamancako katedradunaren zuzendaritzapean idatzitako *Fonética histórica Vasca* tesi-lan mardulaz gain, kaleratuak zituen *Lenguas y protolenguas*, *El Pasado de la Lengua Vasca*, *Textos Arcaicos Vascos*, *Historia de la Literatura Vasca* edo *Apellidos Vascos*.

Erreterian jaio zen hizkuntzalari, filologo, euskalariak utzi zigun lan erraldoia zenbaterainokoa den jabetzeko hortxe dago 2010. urtean argitara eman zuten Mitxelenaren lan osoa 'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. 15 liburuki, hizkuntzalaritza historikoaz, hizkuntzalaritza orokorraz, euskal hizkuntzaz, Onomastikaz, Lexikografiak eta lexikoaren historiak, euskal literaturaz, eta abarrez idatzitakoak biltzen dituztenak¹.

1. Bilduma horretako X liburukian aurkituko ditu, interesa duenak, hemen aipatzen ditudan Mitxelenaren artikulak. Beste batzuk, berriz, Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Alberdaniak 2001ean argitaraturiko *Mitxelenaren gure artean* bilduman.

Nekez eztabaida zitekeen, beraz, haren pres-takuntza "teknikari lana" egiteko, berak handik urte pare batera aitortu bezala. Batasunaren aurka zeudenen erasoak irakurri ondoren, "Pro Domo" izeneko artikulua argitaratu zuen *Egan* aldizkarian 1970ean. Gaur ere irakurtzea eta gogoan hartzea merezi duen lanean, haxe idatzi zuen: "Erabakiak, nik uste, ez dituzte inolaz ere teknikoek hartu behar, politikoez (...) baizik: herriak horretarako hautatu dituen politikoez, noski. Teknikoen lana erabaki horiek ahalik errazen, lasterren eta ekonomikoen, nolarebait esan, eragitea da. Hizkuntzalaria ere, hizkuntza gaietan, ez da tekniko bat besterik. Euskal jendeak, gero eta ugariago, zerbait nahi zuela iruditu zitzaidan. Jomuga horretara jotzeko erosoan uste nuen bidea hartu nuen, besteren mandadari bezala, ez neure kabuz. Ez nintzen, beraz, teknokrata izan, baizik tekniko soil. Gaitasuna, tekniko izateko beharrezko dena, edonork uka dezake: edonork, nik neure aldetik (eta bestek beretik, ez bainintzen, ez hurrik eman ere, ni bakarrik mintzatu han) aurkeztu nuenaren aldamenean, nik aurkeztu nuenaren kontra, nahiago baduzue, beste zerbait aurkezten baldin badu. Hona ene "desapioa": kontu hauek jendaurrean astindu nahi dituenak, prest gauzka, uda aldean edo, jendaurrean ahoz aho eta aurpegiz aurpegi aztertzeke. Donostian, bestetan ez bada, idoroko dugu leku egokia horretarako. Baina, hau bego garbi, bere aldetik zerbait ekarri beharko du eskaintzeko, okerragoaren truk. Ez dadila esku-hutsik ager, aski esku-hutsik baikaude euskaldun guztiok". Esan beharrik ez dago, inork ez ziola erantzun "desapio" hari.

Lau ildo azpimarratuko ditut eta nabarmendu Mitxelenak euskara batuari egindako ekarrian. Lehena, batasunaren beharra aldarrikatzea. Aipatu berri dudan "Pro Domo" artikulua ezin hobea da garai hartako giroaz jabetzeko. Izan ere, Euskaltzaindiak batasun-bideari ekin izanak ez zuen esan nahi, inola ere, euskaltzale guztiak, euskal hiztunak oro har, batasunaren alde zeudenik. Mitxelenak berak hor aipatzen dituen *Zeruko Argia* aldizkariako artikuluetan ikusten den aurkakotasunaz gain, aski dugu Bixente Latiegik eta Dunixi Oñatibiak 1982an argitaratu zuten *Euskaltzaindiari epaiketa* liburuko hainbat pasarte irakurtzea, edo hurrengo urtean gaztelaniaz kaleratu zutenari *Euskaltzaindia el batua y la muerte del euskera*. Nahikoa argiak dira izenburuak, baina, zalantzarik izanez gero, horra lerro batzuk zer pentsatzen duten jakiteko: "Kezka gogo-zigortzalle biurtu zaigu, euskaldunoi,

joandako mendearen amaia ezkerro Izkuntzaren Batasuna, eta nire ustez batere arrazoirik gabe, Euskerak -nire ustez-, ez bait du ezertarako batasunik bear. Ez behintzat bizitzeko. Batasunik gabe bizi izan da orain arte. Izkuntza bateratuz inguratua egon oi da beti. Il dira izkuntza aundi, gogor, indartsu, "zeatz bateratu" aiek danak. Guzti aietatik euskera bakarrik bizi da oraindik: "bateratu gabeko" izkuntza!".

Horixe zen, beraz, lehen lana: batasunaren beharra lau haizetara zabaltzea, batasunaren beharraz konbentzitzea euskal jendea. Eta horrelaxe hasi zuen, hain zuzen ere, Arantzazuko biltzarrerako prestatu zuen txostena (Euskaltzaindiaren webgunean Arauen ataleko lehena, "Ortografia" izenekoa): "Ezin-bestekoa. il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea". Eta ideia bera errepikatuko du gehiagotan ere. 1970eko "Pro Domo" artikuluan: "Ez da aski gure hizkuntzaren batasuna euskarak iraun dezan, ez hurrik eman ere; ez da aski, baina premiazkoa da, batasunik gabe ez baitu iraungo, bizi garen oraingo eta biharko mundu honetan. Batasuna eginik ere, gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde zurretik. Eta hau ez da ene uste ustela, euskaldun anitzena baizik. Galda iezaiozu edozein hizkuntzalariri eta ikusiko duzu zer erantzungo dizun". Edota 1977an *Deian* argitaratutakoan: "Eguzki argia bezain argi ikus daiteke batasunik gabe ez dugula bihar edo etzi euskararik izango: batasuna ez da aski den baldintza, baina bai premiazkoa eta ezinbestekoa, hizkuntza biziko baldin bada".

Ez zegoen bakarrik, jakina, batasunaren aldeko aldarrian. Ondoan zituen Txillardegia, Aresti, Baionako Biltzarreko idazleak eta, oro har, gazteak. Hala ere, hamaika nahigabe ekarri zizkion batasunaren aldeko jarrera honek; "Pro Domo"-n aitortzen du: "Maizegi pentsatu dut euskalduntasunari edo delako arbasoengandik datorkidan grina horri hain loturik ez banengo, lasaigo biziko nintzatekeela eta are agian nagoen baino diruz hornituago nengokeela". Pentsatu, agian, pentsatuko zuen, baina horrek ez zuen bere bidetik aldendu. Mitxelenak berak azalduko digu zergatik, Patxi Altunak prestatutako *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* bildumarako idatzi zuen "Azken ordukoak" testuan: "Behin eta berriz esana dut ez nintzela neure gogoz sartu saltsa horretan, besteren eskez eta bestek bortxaturik baizik. Ongi baino



Mitxelena 1984ko Kilometroetan.

hobekiago bainekien, batere atsegin ez zitzaidan erantzunbeharra bizkarreratzeaz gainera, nolako lokatzetan sartzen nuen neure burua. Besterik ere gehitu behar dut, ordea. Azken buruan, ez ninduten bulkatu, nerau sartu nintzen neure baitarik. Nahi ez nuelarik ere, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen. Eguzkiaren argia baino argiago agertzen baitzen norbaitek abiatu behar zuela eta, inor sartzekotan, nola egingo nion neronek uko deiari? Hauxe da gerra aurretik, gerratean eta gerra ondoan ikasi dudana: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokela besteri agin. Gogorik gabe eta gogo gaiztoz hasi nintzen, beraz; ez, ordea, kontzientziak eskatzen eta are agintzen zidanaren aurka". Ezin argiago esan.

Azpmarratu nahi dudan bigarren ildo: argi erakustea euskara batua zertarako zen. Arantzazuko txostenean, batasuna ezinbestekoa zaigula aldarrikatzeko da lehen perpausa. Eredu batua zertarako? galderari erantzuteko ondorengoak: "Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera, idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago". Berdin "Aditz Batuaz" txostenean 1972an: "Hizkuntza batuaren eredu hori *izkribuz* erabiltzeko da, noski, gero aho-

hizkuntza bihur baledi ere. Eta izkribuz diodanean, lehen esan izan dudan legeaz, irakaskintzaz ari naiz batez ere, gainerako hizkuntza idatziaren bideak batere gutxietsi gabe". Handik ia hamar urtera ere horixe nabarmenduko du: "Batua, noski, ez dugu non eta noiznahi erabiltzeko behar, zenbait izkribu mota edo erabil-mailarako baizik. Baita ere, bidenabar, han-hemengo euskaldunok elkarrekin hizketan hasten garenean ez dezagun berehala jo, maizegi gertatu ohi denez, erdara batura" ("Jaioko dira berriak").

Hirugarrenik, euskara batuak egin beharreko bide osoa aurreikusi zuen Mitxelenak Arantzazuko txostenean eta errazenetik zailenera zerrendatu zituen: idazkera edo ortografia; antzinako euskal hitzen formak; hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen formak; morfologia: izena (izen-ordea) eta aditza; joskera. Eta ez zuen aukera galdu hizkuntzaren batasunak egin beharreko bidez zein zen oroitarazteko, Euskaltzaindiak *Euskararen Liburu Zuria* egin zuenean: "Bizkortu nahi den hizkuntzak eredu berdindua izan beharko du nahitaez, eta, ahal delarik, batua: ñabarduren mugarriak, desiragarri bezain halabeharrezkoak, arau batzuen barnean hesitu beharko dira. Berdintze lan honek hitzen egokitzea (hitz eratorpena eta konposaketa, ez deklinabidea eta aditza bakarrik) eta sortzea, inoiz ez ex *nihilo* sortua, bideratu beharko du, eta, azkenean, hizkuntza maila guztietara zabaldu, idazkeratik (beti ebakitzeari atxikia) sintaxi eta perpaus barruko hitzen joskeraraino" ("Euskararen bide luze bezain



Mitxelenaren eskuidatzia Salamancatik Euskaltzaindira, 1968.

malkarrak", 1978). Berak zuzenean idatzitakoak dira, urte horietan zehar, "Aditz batuaz", "Aditz laguntzaile batua", "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz", "Udal izenen ofizialtasuna", *Udal izendegiari hitzaurrea*, "Mailegu berrien idazkera", "Hitz mailebatuez"... Bide horretatik aztertu eta onartu zituen Euskaltzaindiak maileguz hartutako hitzak egokitzeko arauak, eta bide horretatik sortu zen eta lan egin zuen lexiko-irizpideak finkatzeko batzordeak, edota Gramatika Batzordeak.

Mitxelenaren ekarriaren laugarren ildoak, batasunerako erabakietan soziolinguistikaren irakaspenak kontuan hartzea. Aditz baturako hautua egitean ikusten hori da ongien, esplizituki aitortzen baitu zein irizpidek duen indarrik handiena. Euskaltzaindiaren hasierako urteetan Luis Eleizalde bazekien aditza izango zela auzirik zailenetakoa; berdin uste zuen Mitxelenak ere eta horregatik zioen: "bi motatako arrazoiek behar dute izan gidari hautatze horretan: arrazoi linguistikoek, hizkuntzaren egituraren bertan finkatuek, eta arrazoi, nolabait esan, soziolinguistikoek. Dударik eta zalantzarik gabe uste dut (...) azkenekoen pisuak behar duela izan nagusi egiten den bereizketan. Besteek dutena baino larriagoa baita. Bestela esan, batak ez daude besteen ondoan jartzeko neurrian, ezta

alderatzeko ere. Hori horrela delarik, eta nahiago nuke besterik esan, Gipuzkoako aditza hartu behar da oinarri, ezpairik gabe. Gipuzkoa eta Nafarroa garaikoa" ("Aditz Batuaz", 1972).

Eredu baturako formak hautatzean, beraz, soziolinguistikako irizpideei eman zien lehentasuna. Soziolinguistikaren argitan zekien, hala-ber, Arantzazuko txostenaren hasiera-hasieran baieztatu zuena, euskara biziko bada, euskaraz irakatsi beharko da. Beste hitz batzuetan esanda, ezinbestekoa zitzaion euskarari irakaskuntzara hedatzea; baina horretarako, irakasleak eta, batez ere, gurasoak irabazi beharko dira batasunerako: "Batasunaren aldeko indarra, idazleak dira batik bat, idazle "ikasiak" nolabait esan. Ez dut nik gutxietsiko idazleen indarra, baina, batasuna ametsen erresumatik gure lurrera jatziko baldin bada, ikastolen laguntza nahi eta nahiezkoa dugu. Hori bistan dagoela deritzat (...). Ikastolez mintzo bagara, irakasleak gureganaturik bageneuzka ere, deus gutxi dira oraingoz gurasoen aldean, sartagia hauen eskuetan dagoelarik. Gauzarik aski ez dakit, baina ez ote da dagoeneko istilu garratzik sortu arlo honetan?" ("Aditz batuaz", 1972). Arrazoi zuen, berriro ere, eztabaida eta haserre gogorren iturri izan baitzen zein eredu erabili behar zen ikas-toletan, batua ala euskalkia. Zorionez, 1980an sortu zen Eusko Jaurilaritzak ez zuen zalantzarik izan zein eredu arautu behar zen irakaskuntzan. Garai hartako Hezkuntza sailburuak, Pedro Miguel Etxenike nafarrak aholku-emaile eta adiskide izan zuen Koldo Mitxelena. Hor jaitzi zen euskara batua ametsen erresumatik gure lurrera eta irabazi etorkizuna.

Askotan aipatu dira azken urteetan Mitxelenaren hitz hauek: "Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia" ('Euskararen bide luze bezain malkarrak' *Euskararen liburu zuria* 1978). Argi izan zuen batasuna zela horretarako lehen urratsa, nahiz hori ere aski ez izan: "batasuna eginik ere gal daiteke; batasunik gabe galdua dago alde z aurretik". Buru-belarri lotu zitzaion eginkizun horri kontzientziak hala agintzen ziolako, bere eginkizuna zelako. Koldo Mitxelena Elissalt erreteriarrek egin zuen bere parteak. Orain guri dagokigu lanean jarraitzea euskarak iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia izan dezan.